



Zenbat aldiz entzun dugu Astigarragarrok Sagardoetxeari buruz albiste desberdinak ??

Kokapen desberdinak, eraikitze data desberdinak eta abar eta abar. Bai, prozesua konplexua eta korapilotsua izan da, baina helburua errealitate bihurtu da.

2003an Siadekok egin zuen lana ardatz bezala hartu eta Sagardun Partzuergoak lanari aurre egiten dio. Proiektu desberdinak eta kokapen desberdinak proposatu, erakunde desberdinetan diru laguntzak eskatu eta abar.

Pixkanaka lanak bere emaitzak ekartzen ditu. Alde batetik, Astigarragako Udalak Kultur Etxea eta bere inguru eskeintzen Sagardoetxea egiteko eta bestetik Eusko Jaurlaritzak eta Udalak berak Sagasti Pedagogikoa egiteko diru laguntza eskeintzen dute.

Dagoeneko Sagastiako lanak bukatuta daude eta beste fase bateri ekin diogu. Interpretazio Zentroa, Sagardoteka (Dastaze tailerra eta denda), Zerbitzuak (Informazio bulegoa, aparkalekuak eta abar).

Uztailak 23,
sagarraren kultura ezagutaraziko duen
sagasti museistikoaren ate-irekiko jardunaldia

Sagardoetxea, errealitate bat Astigarragan

Sagardoetxea, Sagardun Partzuergoak bultzaturiko proiekturik enblematikoena, uda honetan errealitate bihurtuko da eta bisitariak sagarraren kulturara hurbilduko dituen gune ezberdinez osaturik egongo da.

Sagardoetxea izena duen gune ezberdinez, museo, ekimen eta aktibitate zentru hau Astigarragako bizilagunei uztailak 23an izango den ate irekiko jardunaldian ezagutaraztera emango zaie.

Sagardoetxeak Astigarragako Kultur Etxean du bere egoitza, Sagardun Partzuergoaren baitan, eta ezberdindatutako hiru gune ditu. Lehenengoa sagasti museistikoa da eta Kultur Etxe ondoko ipar hegalean zabaltzen da. Gune hau ondo ezberdinduriko zortzi gunez osaturik dago, bertan sagar barietate desberdinak, gidatzeko modu desberdinak, kimatzeko sistemak, e.a. ikusi ahal izango direlarik.

Sagasti museistikoa aire librean dagoen espazioa da, sagarraren kultura, Euskal Herriari mendeetan zehar loturikoa, modu pedagogiko eta dinamiko batean gozatu daiteken ibilbidea du. Honen inguruan hainbat aktibitate erakutsiko dira, irakaspenak, txertoak, eta laboreak ez bakarrik profesionalei edo nekazal lanetan dabilenari zuzenduak, baizik eta, eta hau da garrantzitsuena, gure kulturara hain loturik dagoen aktibitate honetan interesaturik dagoen edonori zuzendua. Eta, nola ez, gure gazteei, modu entretenigarri eta dibertigarri lizugarri den mundu hau gerturatuz.

Gune museistikoa

Kultur Etxearen ondoan, sagastiaren behealdean, gune museistikoa aurkitzen da, errekurso guztiak eta teknologia aurreratuen hornituriko espazio itxia, non panel informatiko, material elkarreragile edo interaktibo eta argazki eta jokoen bidez sagarraren mundu lilugarriaren, sagardoaren eta Euskal Herrian duen garrantzi kulturalaren iragana, oraina eta geroa erakutsiko ditu.

Eremu honetan Astigarraga Euskal Herrian sagardoaren bihotza dela erakusten duen ibilbide historikoa aurkituko dugu.

Sagardoetxeak duen hirugarren gunea sagardoaren dastaketara dedikaturikoa da, bereiziki txotx-aren ohituri loturikoa. Honetarako, Sagardun Partzuergoko bazkide diren hamahiru sagardotegien laguntza dugu.

Sagardoetxea guneak denda bat ere du non sagarra eta sagardoarekin erlasionaturik dauden oroigarri, dokumentazio, informazio eta promozioak eros ahal izango dira.

Turismoa eta formakuntza

Sagardoetxea, honela, turismoaren dinamizatzaile, formazio eta Euskal Herriko sagarraren hedapenerako bitarteko garrantzi batean bihurtzen da.

Dudarik gabe, Astigarragaren kokapen geografikoak Donostialdean eta sagardoarekin osatzen duen bikoteak, Sagardoetxea lehen magnitudeko errekurso turistikoan bilakatzen du eta gero eta zabalduago dagoen turismo kulturalaren ibilbideetan kontutan hartu beharrekoa.

Garrantzitsua izan badaiteke arlo hau herriaren aktibitate ekonomikoaren dinamizazioarako, garrantzi berdina edo gehiago du arlo kultural-formatiboan.

Sagardoetxeak eremu berdinean beste inon aurki ez daitezken sagar barietate zabala, ziklo ezberdinetako ikasleentzat informazio diferentzial garrantzitsua eta bereziki, nekazaritza teknika desberdinen ikasketetara dedikaturikoentzat, laborantza sistema desberdinak ikusi eta ikastea ahalbidetzen du.

Honekin batera, Sagardoetxea sagardoa euskal nortasunaren eta euskal ohituen adierazgarri denaren hedapenerako bitarteko nagusian bilakatzen da. Baina hedapen hau modu aktiboan egingo dugu, naturarekin harremanetan oinarrituriko ikasteko moduan, ikusiz eta ikutuz. Denentzako eremua, haur eta heldu, ikastetxeak eta partikularrak, taldeak eta familiak.

Sagardoetxeak, beraz, gure lehena, oraina eta geroa erakusten ditu. Sagardoetxea elementu aktibo bat da, bizia da. Sagardoetxea Euskal Herrian bizirik dagoen kulturaren adierazpena da.